

Altzako Euskal Jaiak inoiz baino indartsuago datoz

X.A.

Bihar emango zaie hasiera Altzan laugarren urtez ospatuko diren Euskal Jaiei, "Txirri eta xirri euskaraz irri" lemapean. Hamabost elkarte, erakunde eta ikastetxe dira egitarauaren antolakuntzaz arduratu direnak eta urtez urte gehituz doaz. «Altzan aspaldian egiten ziren ekitaldiak euskararen inguruan eta, urte batzuetako ete-naldiaren ostean, hainbat talde hasi ginen elkarten berriz zerbait egiteko», diote.

Aurten bada nobedaderik, ma-hainguruak antolatu baitira lehe-nengo aldiz. «Euskaraz direnean ez dute izaten erantzun handirik», azaldu dute, baina hala ere au-sartu egin dira. Aurten Euskal Se-lekzioa da hautatu duten gaia, eta bertan Nagore Gabellanes hockey jokalaria, Samboko euskal selek-zioko kide bat eta Altza pilota es-kolako ordezkari batek hartuko dute parte, moderatzaile lanetan Koldo Alduntzin arituko delarik. Bihar 8etan Casares kultur etxean izango da. 4etan, berriz, seri-grafia tailerra zabalduko da Gazte Lekuan.

Edizio honetan aurrekoetan baino egitarau luzeagoa prestatu dute. Arrakastarik handiena duen ekitaldia, dudarik gabe, barri-kotea da. Igandean 2.30ean egingo da Altzako frontoian eta ondoren Triki Ta Ke taldearekin erromeria izango da. Balkaltzera 200 pertsona inguru bildu izan dira beste urteetan eta aurten ere

erantzun ona espero dute antola-tzaileek. Parte hartu nahi dutenek txartelak salgai dituzte Azpil AEK euskaltegian eta Altza euskalte-gian, Txalaka elkarte, Casares Kultur Etxean eta Elozegi ta-bernan.

Barrikotearen aurretik, berriz, ibilbidea prestatu dute goizeko 10etan Lau Haizetako bideguru-tzetik abiatuta. Izango da beste ibilbide bat ere, baina oraingoan bertsolariak lagun dituztela ta-bernaz taberna egingo dutena. «Arrakasta du gu tabernetara joaten garelako, bestela ez dakit entzuleak etorriko liratekeen», azaltzen du antolatzaileetako batek. Kaskotik irten eta Harri Berri eta Roteta inguruan ibiltzen dira.

Dantza taldeak

«Iaz bi talde atera ginen, bat He-rretera aldean eta bestea kaskoan. Aurten bakarra izango da, kas-koan, eta datorren urtean berriz behera joango gara», gehitzen du.

Dantza taldekoak ere animatu dira Euskal Jaian parte hartzera eta larunbatean arratsaldean La-rratxoko euskal dantza taldea eta Herri Ametsa ikastolakoa arituko dira Larratxoko eskola zaharrean. Horrez gain, ez da aspertzeko au-kerarik izango aste osoan. Seri-grafia tailerra, kontzertua, umeentzako musika jaialdia eta pilota partiduak iragartzen dira.